






JARRAI GAITZAZU SAREETAN / SÍGUENOS EN REDES

 @berriozar31013

 @berriozar31013

 Ayuntamiento de Berriozar-Berriozarko Udala



**Besta giro ederra  
Inauterietan**

.....  
**Buen ambiente  
en los Carnavales**



## INFORMAZIO INTERESGARRIA INFORMACIÓN DE INTERÉS

### Udala / Ayuntamiento

948 30 00 05  
»» berriozar@berriozar.es

### Udaltzaingoa / Policía Municipal

639 400 906 / 948 30 07 08  
»» policia@berriozar.es

### Zerbitzuak / Servicios

#### Euskara / Euskera

948 30 03 59  
»» euskara@berriozar.es

#### Kultura / Cultura

948 30 16 56  
»» cultura@berriozar.es

#### Kirolak / Deportes

948 30 16 36  
»» deportes@berriozar.es

#### Berdintasuna / Igualdad

948 30 16 31  
»» igualdad@berriozar.es

#### Programa LGTBI

»» lgtbi@berriozar.es

#### Diversidad Cultural / Kultur Aniztasuna

948 30 00 05 - Ext. 154  
»» diversidadcultural@berriozar.es

#### Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea / Mancomunidad Servicios Sociales

948 30 00 07  
»» serviciosocial@manserso.org

#### Ludoteka / Ludoteca

607 22 89 08  
»» ludotekaberriozar@gmail.com

#### Gaztegune

673 15 95 11  
»» gaztegune@berriozar.es

#### Bake Epaitegia / Juzgado de Paz

948 30 08 79

#### Liburutegia / Biblioteca

948 30 17 65  
»» biblibrr@cfnavarra.es

#### Iruñalde Eguneko Zentroa / Centro de Día Iruñalde

692 075 708  
»» centrodediaberriozar@berrikilan.es

#### Kiroldegia / Polideportivo

948 30 17 19  
»» poliberriozar@berrikilan.es  
info@berrikilan.es

### Bestelakoak / Otros

#### Musika Eskola / Escuela de Música

948 30 04 30  
»» musica@berriozar.es

#### Haur Eskola / Escuela Infantil

848 46 38 44 / 673 292 922  
»» eimurtxintxa@berriozar.es

#### Mendialdea I Eskola / Escuela Mendialdea I

948 63 35 34  
»» cpberrio1@educacion.navarra.es

#### Mendialdea II Eskola / Escuela Mendialdea II

948 63 35 36 / 722 899 173  
»» mendialdea.ip2@educacion.navarra.es

#### Auzalor AEK Euskaltegia

948 30 06 02  
»» berriozar@aeek.eus

#### Institutua / Instituto

948 30 94 05  
»» iesoberr@educacion.navarra.es

#### Done Eztebe Erretiratuen Elkarte / Club de Jubilados/as San Esteban

948 30 13 08  
»» jubiladosesteban@hotmail.com

#### Osasun Etxea / Centro de Salud

948 30 94 04



Udalaren informazio aldizkaria / Boletín de información municipal  
**2026 APIRILA-ABRIL / Nº 6. ALEA**

**Argitaratzailea:** Berriozarko Udala.  
Erredakzio Kontseilua: Iker Mariezkurrena,  
Félix Puyo, Arantxa Ríos, Iñaki Bernal,  
Francisco Javier Torrecillas eta Daniel Cuesta.  
**Egilea:** Heda Comunicación S.L.  
**Argazkiak:** Jon Urriza, Anne Arguiñariz.  
**Ale kopurua:** 4.500 ale.  
**Doako banaketa.**

**Edita:** Ayuntamiento de Berriozar.  
**Consejo de redacción:** Iker Mariezkurrena,  
Félix Puyo, Arantxa Ríos, Iñaki Bernal,  
Francisco Javier Torrecillas y Daniel Cuesta.  
**Realiza:** Heda Comunicación S.L.  
**Fotografías:** Jon Urriza, Anne Arguiñariz.  
**Tirada:** 4.500 ejemplares.  
**Difusión gratuita.**



**Berriozar**



## Ezagutu Berriozar Conoce Berriozar

● Bazenekien Berriozarko 16 emakumek Iruñeko familia burguesendako arropa garbituz ateratzen zutela bizimodua, 1880an? Herriko harraska (labadorea) 1745ean egin zen, eta emakumeak hantxe aritzen ziren lixiba edo lixua jotzen arropa garbitzeko, bai zuria bai koloretakoa. Hura ofizio gogor-gogorra zen zinez, emakumeei sos pizar batzuk ateratzeko adina ematen ziena, etxeko, baratzeko eta mahasti edo ardantzetako lanak egiteaz gainera. Ingeniaritza zibileko eraikuntza aparta horrek zutik dirau gorabehera guztien gainetik. Joan den mendeko 40ko hamarkadan, adibidez, elurte handi batek teilatua hondoratu, eta bizilagunek auzolanean berreraiki egin behar izan zuten. Hiru turrusta ditu eta, handienari, erdian dagoenari, Zorroka erraten diogu eta Berriozarko arima da. 2019ko irailean, ihes baten eraginez agortu eta susto ederra eman zigun, baina udaleko obra zerbitzuak konpondu eta, harrezkerotzik, ura ugari dario.



● ¿Sabías que en 1880 había 16 mujeres de Berriozar que se ganaban la vida lavando para las familias burguesas de Pamplona? En el lavadero concejil levantado en 1745 realizaban la jabonada (para la ropa de color) y la colada (para la ropa blanca), un oficio durísimo con el que las mujeres sobrevivían aparte de las tareas domésticas, la huerta o la viña. Esta joya de la ingeniería civil, que hoy sigue en pie, ha superado mil batallas. En los años 40 del siglo pasado, una nevada hundió su tejado, obligando al vecindario a reconstruirlo en auzalan. Su caño central, la Zorroka, es el alma de Berriozar; y aunque nos dio un susto en septiembre de 2019 al secarse por una fuga, el servicio de obras municipal logró que el agua volviera a correr.

**Berriozarko argazki zaharrak UIAn argitaratu nahi badituzu, bidali info@heda.es helbide elektronikora, izena adierazita eta, ahal bada, argazkiari buruzko datu batzuk ere bai (noiz eta non egina, jarduera, etab.).**

**Las personas interesadas en publicar en el BIM fotografías antiguas de Berriozar pueden enviarlas al correo electrónico info@heda.es, indicando su nombre y, si es posible, algunos datos sobre la fotografía (fecha, lugar, actividad, etc.).**

## Baso suteen aurkako jarduera plana, urratsez urrats aurrera

● Baso suteen aurkako udal jarduera plana 2025ean prestatu zen, herritarrak babesteko eta kalte materialak ahalik eta gehien murrizteko. Urratsez urrats ari da aurrera jotzen ongi ezartzeko eta herritarrei jakinarazteko.

Izan ere, foileto bat banatu berri da herriko etxe guztietan, planaren datu nabarmenenak eta informazio garrantzitsua jasota: hau da, arrisku eremuak, herri zaharrerako bilera tokiak eta ebakuazio bide seguruak, nola jokatu baso sute bat atzematen bada, nola jokatu sua erabili baino lehen, eta aholku sorta bat etxebizitzaren inguruan babes gune bat nola sortu jakiteko.

Era berean, gonbitea egin zaie mendekoak dituzten familiei, udalari horren berri jakinarazteko, argibidea eman da etxebizitzaren urteko autoebaluazioa nola egin jakiteko eta dei egin zaio jendeari planaren inguruan antolatuko diren simulakro eta bileretan parte hartzera, surik bada nola jokatu ikasteko.

Kontuan hartu behar da Berriozar arrisku handiko eremua dela udan eta neguan. Udalak, horrenbestez, buru-belarri aritu behar izaten du prebentzio lanetan eta jarduketara protokoloetan, kalteak ahalik eta gutxien izateko.



## Nuevas actuaciones del Plan de actuación frente a incendios forestales

● El Plan de Actuación Municipal frente a Incendios Forestales (PAMIF) de Berriozar, creado en 2025 con el objetivo de proteger a la población y minimizar los daños materiales, continúa dando pasos para su implantación y comunicación a la ciudadanía.

Recientemente se ha buzoneado en todos los domicilios del municipio un folleto que recoge los datos más importantes del plan e información relevante sobre las zonas de riesgo, los puntos de reunión y rutas de evacuación seguras para

el casco antiguo, cómo actuar si se detecta un incendio forestal, cómo proceder antes de hacer uso del fuego o una serie de consejos para crear un espacio defendible alrededor de las viviendas. También se invita a las familias con personas dependientes que lo comuniquen al Ayuntamiento, se incluye información sobre cómo realizar la

autoevaluación anual de las viviendas y se anima a la población a participar en simulacros y reuniones que se organicen en torno a este plan para saber cómo actuar en caso de incendio.

Hay que tener en cuenta que Berriozar es Zona de Alto Riesgo (ZAR) tanto en verano como en invierno, lo que obliga al Ayuntamiento a trabajar activamente en actuaciones de prevención y en protocolos de actuación para minimizar los daños.



## Udalak bat egin du Elizak immatrikulatutako ondasunak aztertzeko hitzarmenarekin

● Otsailaren osoko bilkurak onetsirik, Udala toki entitateen sarean izanen da kide, Nafarroako Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen zerrendan sartuak dauden herri ondasunen titulartasun publikoa dokumentatzeko eta udal artxiboa ikerketa taldearen eskura jartzeko. Toki entitateak koordinazioan ari dira Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin. Behin ondasunen izaera publikoa frogatutakoan, elkarrekin eta koordinazioan arituko dira ondasun horiek berreskuratzeko. Nafarroako Gobernuari, gainera, prozesua gidatzeko eta behar den euskarri juridikoa emateko eskaera egin diote, ondare hori komunitatearen eskuetara itzul dadin ziurtatze aldera.

2024an, Nafarroako Gobernuak eta NUKFk hitzarmena sinatu zuten herri ondasun horiek aztertzeke; hori dela eta, Tracasa Instrumental S.L. enpresa publikoak ikerketarako laguntza teknikoa emateko lanak egingen ditu, eta Federazioak, berriz, ondasun bakoitzaren ibilbide historikoa dokumentatu, ondasunen izaera komunala erakutsi dezaketen froga dokumental guztiak bildu eta ikerlanak agiri batean jasoko ditu eta, horrekin batera, kasuan kasuko ondasuna herri ondasuna den edo ez.

## Adhesión al convenio para el estudio de bienes inmatriculados por la Iglesia

● El Pleno del Ayuntamiento aprobó el 25 de febrero su participación en la red de entidades locales que, de forma coordinada con la Federación de Municipios y Concejos de Navarra, están documentando la titularidad pública de bienes comunales incluidos en el listado de bienes inmatriculados por la Iglesia Católica en Navarra, poniendo el archivo municipal a disposición de este equipo de investigación común. El acuerdo incluye igualmente el apoyo a la estrategia mancomunada para que, una vez acreditada la naturaleza pública de los bienes, se proceda a su recuperación de forma coordinada, instando al Gobierno de Navarra a que lidere y preste el soporte jurídico necesario para asegurar que este patrimonio retorne a la comunidad.

Gobierno de Navarra y FNMC firmaron en 2024 un convenio para el estudio de estos bienes comunales por el que se ha encargado a la empresa pública Tracasa Instrumental S.L. la realización de trabajos de asistencia técnica para realizar esta investigación, y la FNMC procederá a documentar la trayectoria histórica de cada bien, reunirá todas aquellas pruebas documentales que puedan acreditar su carácter comunal y elaborará un documento que recoja los trabajos de investigación realizados y la conclusión sobre su carácter o no de bien comunal.

## Etxebizitzaren prezioari tentsioa kentzeko plan berriak

**N**afarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako departamentuak berriazko bost plan prestatu ditu, bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatutako udalerriekin elkarlanean, etxebizitza merkatuaren prezioetan dagoen tentsioa arintzeko. Planek neurri zehatzak eta abian jarri beharreko jarduketa nagusiak zehazten dituzte.

Aipatu behar da lankidetzaren prozesua egin dela Etxebizitzarako Zuzendaritza Nagusiaren eta toki entitateen artean, 2026-2028 epealdirako zer neurri zehatz hartu erabakitzeko. Plan bakoitzak berriazko ekintzak bildu ditu,

baina guztiak ere ildo orokor berdinak dituzte, hala nola hutsik dauden etxebizitzak eta lurzorua mugiaraztea, etxebizitza turistikoaren arautzea, zerga hobariak zehaztea, etxebizitzari buruzko informazioa hedatzea, eta ikuskatzea eta kontrola egitea.

**Hutsik dauden etxebizitzak eta lurzorua mugiarazi** nahi dira alokairuko merkaturantz bideratzeko, Nafarroako Gobernuak alokairu poltsaren bidez, arrazoizko prezioetan eskaintzeko. Horrez gain, behar diren formulak bilatu nahi dira udalerrietan eskura dauden lurzorua ikusarazteko eta udalerrietan ere etxebizitza berriak arrazoizko prezioetan

sustatzeko.

**Etxebizitza turistikoaren arauketari** dagokionez, herri bakoitzean aztertuko da zernolako eragina duen etxebizitza turistikoak alokairuko merkaturatu, eta, behar den tokietan, apartamentu turistikoak mugak paratuko zaizkie.

**Zerga hobariak** ere dira nabarmentzekoak. Helburua da etxebizitza eskuragarri eskaintza handitzea eta, era berean, **informazioa behar bezala hedatzea** sustatuko da, hori funtsezkoa baita herritarrek, bai alokatzailerek bai maizterrek, beren eskubideak eta betebeharrak ezagutu ditzaten.

Azkenik, plan guztietan badago **ikuskapenari eta kontrolari** dagokion ildo. Hau da, zer egin behar den etxebizitza arloko balizko arau-hausteen kontra jarduteko.

## Nuevos planes para destensionar los precios de la vivienda

**E**l Departamento de Vivienda, Juventud y Políticas Migratorias del Gobierno de Navarra ha elaborado en colaboración con los municipios declarados como Zona de Mercado Residencial Tensionado cinco planes específicos que permitirán actuar para destensionar los precios del mercado de la vivienda. En concreto, los planes establecen medidas concretas y definen las principales actuaciones a poner en marcha. Para la elaboración de estos planes se ha realizado un proceso de colaboración entre la Dirección General de Vivienda y las entidades locales para acordar medidas de actuación concretas para el periodo 2026-2028.

Cada plan contiene una serie de acciones específicas, pero todos coinciden en unas líneas generales, como lo son la movilización de vivienda vacía y suelo, la regulación de la vivienda turística, las bonificaciones fiscales, la difusión de información sobre vivienda y la inspección y control.

Respecto a la **movilización de vivienda vacía y suelo**, se van a impulsar medidas para movilizar la vivienda a través de la Bolsa de Alquiler de Gobierno de Navarra, para ofertarlos a precios asequibles, además de buscar fórmulas para dar visibilidad a los suelos existentes en los municipios e incentivar la promoción de

viviendas nuevas a precios asequibles.

En cuanto a la **regulación de la vivienda turística**, se realizará un estudio sobre la incidencia de la vivienda turística en el mercado de alquiler y se establecerán limitaciones a los apartamentos turísticos donde así sea necesario. También destacan las **bonificaciones fiscales** para incentivar el aumento de la oferta de vivienda asequible y la **difusión de información** como un aspecto clave para que la ciudadanía, tanto personas arrendadoras como arrendatarias, conozca sus derechos y obligaciones.

Finalmente, todos los planes contienen una línea relativa a la **inspección y control**, que hace referencia a las actuaciones que se deben llevar a cabo respecto a las posibles infracciones en materia de vivienda.

## Aldaketa Udaltzaingoaren burutzan

● Berriozarko Udalak ofizialki jakinarazi du udaltzainburua aldatu duela, kidegoari bultzada berria emateko eta egitura operatiboa eguneratzeko asmoz. Izan ere, martxoaren 11n dimisioa eman ondotik, Juan Ceballos Itoizek udaltzainburu izateari utzi dio, 2004az geroztik betetako karguari, alegia. Berriozarko Udalak eskertu egin du azken bi hamarkadetan udaltzaingoaren burutzan egindako lana eta erakutsitako konpromisoa. Udalak, orain, Iker Arroyo Arrosagaray izendatu du udaltzainburu. Foruzaina da 2010az geroztik, eta ibilbide sendoa egina du segurtasun publikoaren arloan eta gaitasun handia du familia-bitartekaritzan, psikologia kriminalean eta genero-indarkeriaren arloko arreta teknikoan.

## Relevo en la jefatura de la Policía Municipal

● El Ayuntamiento de Berriozar ha comunicado de forma oficial el relevo en la jefatura de la Policía Municipal, una decisión enmarcada en la voluntad de dar un nuevo impulso al cuerpo y actualizar su estructura operativa. Tras presentar su dimisión el 11 de marzo, Juan Ceballos Itoiz ha cesado en sus funciones como Jefe de Policía, cargo que ostentaba desde el año 2004. El Ayuntamiento de Berriozar ha agradecido su trabajo y el compromiso desempeñado al frente del cuerpo durante estas dos décadas, y ha designado como nuevo Jefe a Iker Arroyo Arrosagaray, Policía Foral desde 2010 que cuenta con una trayectoria consolidada en el ámbito de la seguridad pública y una amplia capacitación en mediación familiar, psicología criminal y atención técnica en violencia de género.

# Aurrerapausoak hiri mugikortasun jasangarriari buruzko diagnostikoan

**B**erriozar urratsez urrats ari da lanean hiri mugikortasun jasangarriko plana urte bukaeran prest izateko. Plana tresna egokia baita herritarren joan-etorriak gure udalerrian nola egin planifikatzeko eta, horretarako, modu jasangarriagoak sustatuko dira biztanleen bizitza hobetzeko.

Lehen fasean, analisia eta diagnostikoa egiten ari dira aholkularitza-entresa baten bidez, zer arazo eta zer indargune dauden jakiteko. Horretarako, inkestak egin zaizkie herritarrei, merkatariei,

elkarteei eta kolektiboei.

Atzeman diren arazo nagusiak dira Berriozarko lotunean dagoen auto pilaketa (40.000 ibilgailu eguneko), oinezkoendako azpiegituran diren gabeziak (zenbait espaloi ez dira behar bezain zabal, desnibelak eta pasagunerik ez izatea), bidegorri sare etena eta gaizki seinalizatua, auto pribatua erabiltzeko joera oinez egin daitezkeen tarteetan, eta aparkaleku arazoak udalerriko hainbat tokitan.

Indarguneen artean nabarmentzekoak dira

udalerrira luze-zabaleran txikia izateari esker ekipamendu guztiak gehienez 15 minutuan egin daitezkeela oinez edozein auzotatik, ia aldarrik ez duen

topografia lau dugula, biztanleria gaztea izatea (adinez, batez beste, 39,7 urte), garraio publikoko linea finkatua dagoela eta nabarmen erabiltzen dela, eta aparkamendu sistemak jartzeko aukera izatea, hala nola sektorizazioak edota sarbide murriztuak.

Diagnostiko hori bigarren faserako lanaren oinarria da. Bigarren fasean, gainera, herritarren parte-hartzea areagotu, helburuak zehaztu, neurri zehatzak prestatu eta jarraipen plana jarriko da abian.

## Avances en el diagnóstico de movilidad urbana sostenible

**B**erriozar sigue dando pasos para contar con un Plan de Movilidad Urbana Sostenible (PMUS) a finales de este año, un instrumento que va a permitir planificar de manera ordenada cómo se desplazan en el municipio las personas, fomentando modos más sostenibles para mejorar la vida de sus habitantes.

En una primera fase se está llevando a cabo un trabajo de análisis y diagnóstico a través de una consultora para identificar los problemas existentes y también las fortalezas. Para ello se

han llevado a cabo encuestas entre la ciudadanía, comerciantes y asociaciones y colectivos.

Los principales problemas detectados son la congestión en el nudo de Berriozar (40.000 vehículos/día), diferentes carencias en la infraestructura peatonal (anchura insuficiente de algunas aceras, desniveles o falta de vados), una red ciclista discontinua y mal diseñada, dinámicas de uso del coche privado en trayectos susceptibles de realizarse a pie o problemas de aparcamiento en varias zonas del municipio.

Entre las fortalezas, destacan la superficie reducida del municipio con todos los equipamientos accesibles a pie en menos de 15 minutos desde cualquier barrio, una topografía llana sin apenas cuestas, una población joven (media de edad de 39,7 años), una línea de transporte público consolidada y muy utilizada o la posibilidad de implantar sistemas de aparcamiento como sectorizaciones o accesos restringidos.

Este diagnóstico va a ser la base de trabajo para la segunda fase, que incluirá más participación ciudadana y la definición de objetivos, la elaboración de medidas concretas y la puesta en marcha de un plan de seguimiento.

## Berriozarrek eskatu du bizikleta elektrikoaren sare publikoa Iruñerri guztira zabaldu dadila

● Berriozarko Udalak erakunde inplikatuak jakinarazi die prest dagoela Iruñerriko bizikleta elektrikoaren sare publiko batean parte hartzeko, era mankomunatuan kudeatzeko modukoa. Horrelako sarean parte hartzeko konpromisoa eskualdeko udalei, Iruñerriko Mankomunitateari eta Nafarroako Gobernuari bidali die, hain zuzen ere.

Udaleko osoko bilkurak sare eskualde guztian antolatzeko prozesua gidatzeko eskatu dio Mankomunitateari eta, gehienez sei hilabeteko epean aurkeztu dezala behin betiko proiektu tekniko Iruñerriko herri guztietan bizikleta elektrikoaren sistema publiko bat ezartzeko, eta halaber, koordinazio prozesu bat abiarazi dezala Iruñeko Udalaren, Mankomunitatearen eta gainerako udalen artean, zerbitzua atxikitzen diren udalerrira guztietan pixkanaka ezartzeko. Era berean, proiektua kofinantzatzeko eskaera egin dio Nafarroako Gobernuari eta laguntza tekniko eman diezaiola, ekimen estrategikoa baita isuriak murrizteko eta mugikortasun jasangarria bultzatzeko.



## Berriozar pide la extensión del sistema público de bicis eléctricas a toda la Comarca

● El Ayuntamiento de Berriozar ha trasladado a las entidades implicadas -ayuntamientos, Mancomunidad de la Comarca y Gobierno de Navarra- el compromiso de formar parte de una Red de Bicicletas Eléctricas mediante gestión mancomunada a través de la Comarca de Pamplona.

El acuerdo de Pleno insta a la Mancomunidad a liderar el proceso de comarcalización, presentar en el plazo máximo de seis meses un proyecto técnico definitivo para la implantación del sistema público de bicicleta eléctrica en todas las localidades de la Comarca de Pamplona, e iniciar un proceso de coordinación entre el Ayuntamiento de Pamplona, la Mancomunidad y el resto de ayuntamientos para la implantación progresiva del servicio en todos los municipios adheridos.

También solicita al Gobierno de Navarra la cofinanciación del proyecto y la colaboración técnica en el proyecto, al tratarse de una actuación estratégica para la reducción de emisiones y la movilidad sostenible.

## Aurkeztu da Gipuzkoako etorbidea berroneratzeko proiektua

**A**linea Ingeniería y Territorio S.L. enpresak Gipuzkoako etorbidea berroneratzeko lanen proiektua prestatu berri du. Helburua da oinezkoendako guneari indarra ematea eta elkarrekin egoteko, bizikidetzarako eta harremanetarako guneak sortzea, ideien lehiaketaren soluzio irabazletik abiatuta. Proiektuaren arabera, zoladurak bere osoan berritu, irisgarritasuna hobetu eta egonleku eta bizikidetzara gune berriak sortuko dira, oinezko izatera sendotuz eta hiri espazioaren ingurumen

kalitatea areagotuz. Proiektuak, halaber, erabilerak bereiziko dituen plataforma bakarra proposatu du, espaloiak eta galtzada maila berean berdinduta, lotura eta mugikortasuna sustatzeko. Proiektuak, era berean, genero arloko irizpideak txertatu ditu, ingurune seguruagoak, ikusgarriagoak eta erosoagoak jende guztiarendako sustatzeko.

Halaber, bi norabideko bidegorri bat ezartzea aurreikusi du, gaur egungo txirringularitza sareak dituen tarteekin lotua; bestalde, hiri

drainatze jasangarrirako neurriak ere aurreikusi dira, zoladura iragazkorak, euri-lorategiak eta ura kudeatzeko beste sistema batzuk jarriz; eta zuhaitzak eta zuhaixkak landatu eta argiteria publikoko sistema berria paratuko da, esparruaren antolamendu berrira egokitua eta hiri espazioaren energia eraginkortasuna, segurtasuna eta ingurumen kalitatea hobetzera bideratua.

Antolamendu berriaren ondorioz, aparkatzeko leku gutxiago izanen dira etorbidean, baina jarduketa esparruaren hego-ekialdean dagoen aparkalekua handituko da; orain, 37 ibilgailurendako tokia dago, eta gero, 70 izanen dira. Era berean, behar den obra zibila gauzatu da ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak ezartze aldera, mugikortasun jasangarriagorantz jotzeko trantsizioa bultzatzeko.

## Presentado el proyecto de regeneración de la avenida de Gipuzkoa

**L**a empresa Alinea Ingeniería y Territorio S.L. ha entregado recientemente el proyecto de las obras de regeneración de la avenida de Gipuzkoa. La intervención busca reforzar el protagonismo del espacio peatonal y favorecer la creación de espacios de encuentro, convivencia y socialización y parte de la solución ganadora del concurso de ideas.

La intervención contempla la renovación general de los pavimentos, la mejora de la accesibilidad y la creación de nuevas zonas de

estancia y convivencia, reforzando el carácter peatonal y la calidad ambiental del espacio urbano; plantea una plataforma única con segregación de usos, con aceras y calzada al mismo nivel, que favorece la conexión y la movilidad, e incorpora criterios de perspectiva de género, con el objetivo de favorecer entornos más seguros, visibles y confortables para todas las personas.

También contempla la implantación de un carril ciclista bidireccional, conectado con los tramos ya existentes de la red ciclista; incorpora medidas de drenaje urbano sostenible (SUDS) mediante la implantación de pavimentos permeables, jardines de lluvia y otros sistemas de gestión del

agua; y prevé la plantación de nuevo arbolado y especies arbustivas y la renovación y refuerzo de determinados servicios urbanos, junto con la implantación de un nuevo sistema de alumbrado público, adaptado a la nueva ordenación del ámbito y orientado a mejorar la eficiencia energética, la seguridad y la calidad ambiental del espacio urbano.

La nueva ordenación supone una reducción de las plazas de aparcamiento a lo largo de la avenida, que se compensa con la ampliación del aparcamiento situado al sureste del ámbito de actuación, pasando de 37 a 70 plazas. Asimismo, se prevé la ejecución de la obra civil necesaria para la futura implantación de puntos de recarga para vehículos eléctricos, favoreciendo la transición hacia una movilidad más sostenible.

## José Luis Navarro, Udaleko idazkari berria

● Joan den martxoaren 16az geroztik, José Luis Navarro Resano da Berriozarko Udaleko idazkari berria, azken hamar urte honetan kargua bete duen Natalia Rodríguez Aguadoren ordeaz. José Luis Navarro Lizarrako Udaleko idazkaria izan da 2016tik gaur egunera arte eta, aurretik, aholkulari juridikoa izan zen Tafallako, Elortzibarko eta Iruñeko Udaletan, besteak beste. Berriozarko Udalak Natalia Rodríguez en profesionaltasuna eta prestasuna eskertu ditu, pertsona hurbila, atsegina eta elkarlanerako prest beti, eta zorterik onena opa dio bere destino berrian.

## José Luis Navarro, nuevo secretario del Ayuntamiento

● José Luis Navarro Resano es desde el pasado 16 de marzo el nuevo secretario de la Corporación de Berriozar, en sustitución de Natalia Rodríguez Aguado, quien ha ocupado este puesto los últimos 10 años. José Luis Navarro ha sido secretario del Ayuntamiento de Estella-Lizarras desde 2016 hasta la actualidad y trabajó anteriormente como asesor jurídico en los ayuntamientos de Tafalla, Valle de Elorz y Pamplona, entre otros.

El Ayuntamiento de Berriozar agradece la profesionalidad y disposición de Natalia Rodríguez, -una persona cercana, agradable y siempre dispuesta a colaborar- y le desea la mejor de las suertes en su nuevo destino.

## Agrolantxo eta Kalan, esku-hartze komunitarioko proiektu berritzaile berriak

**L**antxotegi Elkarteak Agrolantxo eta Kalan izeneko proiektu berritzaileak aurkeztu zituen joan den martxoaren 11n, Berriozarko Kulturgunean, biak ere esku-hartze komunitariokoak, agroekologia eta kulturartekotasuna lantzeko.

Agrolantxo proiektua, Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuek kofinantzatu, hainbat urtetarako proiektua da eta helburuen artean ditu Nafarroara migratutako 12 gazte (gutxienez) gizarteratzea eta laneratzea, eta kulturarteko parte-hartze komunitarioa indartzea gure herrian. Horrela, prestakuntza

ematearekin batera (gaztelania, oinarritzko gaitasunak eta agroekologia), Berriozarko bizitza komunitarioan buru-belarri parte hartzea lantzen da. Izan ere, epealdi horretan, Berriozarko Adinekoen Sarearekin aritu dira elkarlanean, bai irteera eta topaketetan, bai eta lorategi aromatiko eta sendagarri bat landatzeko orduan; Mendialdea I ikastetxearen eskola inguru eraldatu da, lorezaintza lanen bidez; gazte migratuek Berriozarko Institutuko eskola-baratzean laguntzen diete ikasleei; eta, gainera, Mendialdea II ikastetxeko haur txikienei astero laguntzen diete Berriozarko Naturgelako baratzean.

Kalan, berriz, Agrolantxoren anbizio handiko

erronkei erantzuteko sortu da, Nafarroako Kutxa Fundazioaren eta "la Caixa" Fundazioaren Innova Programarekin lankidetzan, Agrolantxoren osagarri. Kalan proiektuak laguntza sozio-emozionala eta kulturarteko parte-hartze komunitarioa sendotzen ditu, Emoziolan eta Kabia programen bitartez. Helburua da gazte parte-hartzaileak ahaldundutzea, haien ongizatea areagotzea eta udalerriko gizarte-kohesioa bultzatzea. Gazte parte-hartzaileen prestakuntza eta laguntza prozesua 2024ko abuztuan abiatu zen, baina 2025eko bukaera aldetik hona jarduerak ugaritu eta sakonago lantzen ari dira gure herrian.



## Agrolantxo y Kalan, nuevos proyectos innovadores de intervención comunitaria

**L**a Asociación Lantxotegi Elkartea presentó el pasado 11 de febrero en el Kulturgun de Berriozar sus proyectos de intervención comunitaria agroecológica e intercultural, Agrolantxo y Kalan.

El proyecto Agrolantxo, cofinanciado por los Departamentos de Políticas Migratorias y de Derechos Sociales, Economía Social y Empleo del Gobierno de Navarra, es una iniciativa plurianual orientada a la inclusión sociolaboral de al menos 12 jóvenes migrados/as y al fortalecimiento de la participación comunitaria intercultural en Berriozar. El programa combina formación en castellano, competencias básicas y agroecología con la implicación activa en la

vida comunitaria del municipio. Durante este tiempo se han establecido colaboraciones con la Red de personas mayores de Berriozar en salidas, encuentros y la plantación de un jardín aromático y medicinal; se ha transformado el entorno escolar del Colegio Mendialdea I mediante trabajos de jardinería; las personas jóvenes migradas apoyan y asesoran al alumnado en la huerta escolar del Instituto de Berriozar; y además, el alumnado más txiki del Colegio Mendialdea II, semanalmente es acompañado en su espacio de huerta en la Naturgela de Berriozar.

Ante los retos ambiciosos de Agrolantxo nace Kalan, una iniciativa en colaboración con el

Programa Innova de Fundación Caja Navarra y Fundación "la Caixa" complementaria a Agrolantxo que refuerza el acompañamiento socioemocional y la participación comunitaria intercultural a través de los programas Emoziolan y Kabia. El objetivo es empoderar a las personas jóvenes participantes, fortalecer su bienestar y contribuir a la cohesión social del municipio.

El proceso formativo y de acompañamiento de los jóvenes participantes lleva activo desde agosto de 2024, pero es desde finales de 2025 cuando está desplegando su presencia y actividad comunitaria en el municipio con mayor intensidad.

## Korrikak Berriozarko gaua argitu zuen

**K**orrikak ez du huts egin eta, ohi denez, gure herria gurutzatu du, eta aurreko asteetan hainbat ekitaldi antolatu ziren giroa berotzen hasteko.

Horrela, otsailaren 27an, mahai ingurua egin zen Labarga elkartearen, Berriozarko lau idazlek argitaratu dituzten azken liburuak aurkezteko. Martxoaren 7an, Korrikaren Eguna ospatu zen, ekitaldi sorta zabala eginez, hala nola dantzak, mus txapelketa, herri kirolak, triki-poteoa, Kantuz saioa, bazkaria eta bazkalondo musikatua. Martxoaren 13an, gainera, "Minutu 1eko eleak" jardueraren egina zen

Zulo Alai elkartearen, Berriozarko 10 bizilagunek baino gehiagok beren testuak errezitatu baitzituzten, The Corleones taldearen doinuek lagundurik; eta hilaren 20an Korrika Txiki jendetsua ospatu zen. Eta bukatzeko, martxoaren 22an, Korrikak gauaz gurutzatu zituen gure kaleak, ehunka lagun babesean gurutzatu ere. Gainera, herriko 20 kultur, gizarte eta kirol taldek, denda ugari eta Udalak beren diru ekarpena egin eta euskararen aldeko lekukoa pasatu zuten eskuz esku, Berriozarko gauera argitasuna ekarrita.



## Berriozar recibió la visita de la Korrika

**L**a 24 edición de la Korrika visitó Berriozar, y con este motivo se llevaron a cabo diversas actividades en el municipio. Así, el 27 de febrero se celebró una mesa redonda en la sociedad Labarga en la que se presentaron los últimos libros publicados por cuatro escritores y escritoras de Berriozar. El 7 de marzo se celebró el Día de la Korrika, con una programación que incluyó bailes, campeonato de mus, deporte rural, poteo con tritikitixas y Kantuz, comida y sobremesa musical. Además, el día 13 tuvo lugar en la sociedad Zulo-Alai la actividad "Minutu 1eko eleak", en la que más

de 10 vecinos y vecinas de Berriozar recitaron textos propios, acompañados de la música de The Corleones; y el día 20 se celebró una multitudinaria Korrika Txiki. Para terminar, el domingo 22 Korrika llegó a Berriozar de madrugada y recorrió sus calles acompañada de cientos de personas. 20 colectivos culturales, sociales y deportivos locales, numerosos comercios y el Ayuntamiento hicieron su aportación económica para la normalización del euskera, y pasaron el testigo de mano en las calles todavía oscuras de Berriozar.

## Dendetako errotuluak, irudi korporatiboa eta webgunek euskaratzeko dirulaguntzak

● Udalak dirulaguntza-deialdi berria atera du gure herriko saltoki eta elkarteetan euskararen erabilera sustatzeko. Dirulaguntzaren bidez, izan ere, errotuluak, irudi korporatiboa eta webgunek euskaratzeko lanak ordainduko dira, hein batean. Eskabideak Udaleko erregistro elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, eta epea urte osoan egonen da zabalik.

Dirulaguntzaren bidez, errotulu edo irudi korporatiboko elementu berrien kostuaren % 75 ordainduko da eta elementu zaharrak berritzeko kostuaren % 90. Webguneei dagokienez, Udalak euskarazko webgune berriaren % 50 ordainduko du, eta egungo webgunea euskaratzeko lanaren % 90. Pertsona edo erakunde onuradun bakoitzak gehienez 1.000 euroko dirulaguntza jasoko du. Zerbitzu horren adibide bat ekarriko dugu lerrootara, hots, Emilioren Jaki Onak denda. Izan ere, euskara Berriozarren zabal erabiltzen dela ikusirik, dirulaguntza eskatu zuen saltokiko errotulua ele bitan jartzeko, elementu komertzialak bi hizkuntzetan erakustea herrian integratzeko modu ona baita.

## Subvenciones para rótulos comerciales, imagen corporativa y páginas web en euskera

● El Ayuntamiento ha lanzado una nueva convocatoria de subvenciones con el objetivo de promover el uso del euskera en establecimientos y asociaciones de Berriozar. Esta subvención facilitará la instalación en euskera y castellano de rótulos y la traducción de su imagen corporativa y páginas web. Las solicitudes podrán presentarse a través del registro electrónico del Ayuntamiento durante todo el año.

La subvención cubrirá el 75% del coste de los nuevos elementos del rótulo o imagen corporativa y el 90% del coste de la renovación de los antiguos. En el caso de las páginas web, el Ayuntamiento cubrirá el 50% del coste de una nueva página web en euskera y el 90% de la traducción al euskera de una página web existente. En total, cada persona o entidad beneficiaria recibirá una subvención máxima de 1.000 euros. Un ejemplo de este servicio es la tienda Emilioren Jaki Onak, que solicitó una subvención para poner el rótulo de su comercio en ambos idiomas tras comprobar que el euskera se usa ampliamente en Berriozar y que mostrar sus elementos comerciales en ambos idiomas es una buena manera de integrarse en el pueblo.

# Euskararen aldeko urrats sendoa, barne erabilerarako plan berriaren bidez

Udalak euskararen barne erabilerarako plan berria (2025-2028) onetsi du, euskararen erabilera udal esparruan finkatzeko asmoz eta, horren bidez, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. Planak oinarri izan du udal langileekin eta politikariek batera landu den diagnostiko eguneratua.

Udaleko eta Berrikilan nahiz Usalanda enpresa publikoetako langileei egindako galdetegia erabili da diagnostikoa lantzeko eta, halaber, langileei egindako elkarrizketa sakonak eta langileekin nahiz udal taldeekin burutu diren saio parte-hartzaileak. Prozesua Euskara Zerbitzuak eta EMUN aholkularitza-enpresak gidatu dute.

Azterlanaren ondorioa da Udalak hainbat indargune dituela, baina baita eman beharreko pausoak ere. Alde onei dagokien, aipatu behar

da langile euskaldunen artean gaitasun handia dagoela euskaraz lan egiteko, baina barne harremanetan ez dagoela bitartekorik euskaraz jarduteko. Era berean adierazi da Udala une honetan ez dela gauza zerbitzu eta komunikazio guztiak bi hizkuntzetan emateko edo egiteko; udal politikarien eta teknikarien implikazioa ez dela homoginoa, eta ez dagoela, ez hizkuntza irizpide argirik, ez zeharkako plangintzarik.

Hori dela eta, hainbat erronka estrategiko finkatu dira administrazioak euskarazko zerbitzua lehentasunez berma dezan. Besteak beste, "Udalarekin euskaraz" kanpaina jarri da abian, logo berria eta guzti, jendeak jakin dezan badagoela euskaraz komunikatzerik udal zerbitzu guztiak, herritarrek nahi duten hizkuntza erabil dezaten.

Bestalde, hainbat neurri hartu dira, udal langileek Berriozarko ele bitako errealitateari eguneroko lanean erantzuteko; adibidez, langileei irizpideak eta baliabide praktikoak eman zaizkie, baita prestakuntza ere, eta gainera, euskara doan ikasteko eskolak eskaini dira. Era berean, pausoak emanen dira komunikazioak, ekitaldiak, bilerak eta jarduerak ele bitan egin ahal izateko. Barne plana aurrerapauso bat da euskara Berriozarko bizilagunen bizitzaren esparru guztietan normalizatzen jarraitzeko.



## Un paso firme a favor del euskera con el nuevo Plan de Uso Interno

El Ayuntamiento ha aprobado el nuevo Plan de Uso Interno del Euskera (2025-2028) con el objetivo de consolidar el uso del euskera en el ámbito municipal, y así garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía. El plan está basado en un diagnóstico actualizado y compartido con el personal trabajador y político.

El diagnóstico se ha trabajado con el cuestionario realizado entre las plantillas del Ayuntamiento, Berrikilan y Usalanda, entrevistas en profundidad con el personal y sesiones participativas con trabajadores/as y grupos políticos. El proceso ha sido liderado por el Servicio de Euskera y la consultora EMUN.

El estudio concluye que el Ayuntamiento tiene varios puntos fuertes, pero también pasos por dar: En lo positivo, existe una gran capacidad

de trabajar en euskera entre el personal euskaldun, aunque en las relaciones internas no hay mecanismos para el funcionamiento en euskera. También se señala que en este momento el Ayuntamiento no es capaz de realizar todos los servicios y comunicaciones en los dos idiomas; que la implicación del personal político y técnico no es homogénea; y que faltan criterios lingüísticos claros y planificación transversal.

Por ello, el plan se ha fijado diferentes retos estratégicos para garantizar prioritariamente el servicio en euskera por parte de la administración. Entre otros, se ha puesto en marcha la campaña "Udalarekin euskaraz" ("en euskera... también con tu Ayuntamiento"), con un nuevo logo, en el que se indica que es posible comunicarse en euskera

con los diferentes servicios, para que la ciudadanía utilice la lengua que prefiera.

Para que el personal municipal pueda atender la realidad bilingüe de Berriozarko, de cara al trabajo diario, se ha distribuido al personal un conjunto de criterios y recursos prácticos, se ha realizado una formación y se ofrece clases de aprendizaje de euskera de manera gratuita. Así mismo, se van a dar pasos para que las comunicaciones, actos, reuniones y actividades puedan desarrollarse de manera bilingüe.

Este Plan Interno es un paso para seguir normalizando el euskera en todos los ámbitos de la vida de las vecinas y vecinos de Berriozarko.

## "ERA Eskola" gurasoendako eskolaren edizio berria

● "ERA Eskola" ekimenaren bosgarren edizioak hiru grabazio berri ekarri dizkie euskaraz eskolatuen dauden haurren familiei. Bideoak ekimenaren YouTube kanalean daude ikusgai euskaraz eta gaztelaniaz, hainbat gai landuta: adibidez, haurdunaldia, euskararen transmisioa kulturaren bidez, eta euskarazko album ilustratuek eskaintzen dituzten aukera ugariak. Honatx saioetan mintzatzen diren adituak: Estitxu Fernández psikologo perinatala, idazlea eta bertsolaria; Gotzon Barandiaran euskal kulturgintzan aditua, eta Saroa Bikandi, irakurzaletasuna sustatzeko bitartekaria, ipuin kontalaria eta haur eta gazte literaturan aditua.

## Nueva edición de la escuela de padres y madres "ERA Eskola"

● La quinta edición de ERA Eskola trae tres nuevas grabaciones dirigidas a las familias de los niños y niñas que aprenden euskera. En el canal de YouTube de la plataforma se pueden ver tanto en euskera como en castellano los videos sobre el periodo del embarazo, la transmisión del euskera mediante la cultura y las múltiples posibilidades que ofrecen los álbumes ilustrados. Las personas expertas que han impartido las sesiones son la psicóloga perinatal y bertsolari Estitxu Fernández, el trabajador del euskera y su actividad cultural Gotzon Barandiaran y la mediadora en el fomento de la lectura y experta en literatura Saroa Bikandi.

## Ekonomia Solidarioa, ardatz Berriozarren

**B**erriozarko Udalak eta REAS Nafarroak (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioarako Sarea) egitarau berezia antolatu zuten lankidetzan, Ekonomia Sozial eta Solidarioa ardatz harturik. Hamabostaldian zehar hainbat jarduera egin ziren, printzipio sorta bat sustatzeko, hala nola ekitatea, lan duina, jasangarritasun ekologikoa, lankidetzeta, aberastasunaren banaketa zuzena eta

ingurunea zaintzeko konpromisoa. Egitarauaren barnean, Ekonomia Solidarioari buruzko erakusketa ibiltaria jarri zen ikusgai udalerriko hainbat gunetan, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioak eta balioak ezagutzera emateko. Era berean, eredu hori Berriozarren zertan den azaltzeko aurkezpena egin zen jendaurrean, eta mahai inguru bat herriko erakundeekin. Bestalde, martxoaren

8aren baitan, hitzaldia ere egin zen Ekonomia Feministari buruz, jendearen behar materialei eta afektiboei erantzute aldera, autokudeaketa eta elkarrekikotasuna oinarri harturik. Azkenik, kontsumo kritikoari buruzko tailer bat egin zen, kontsumo ohiturek ingurunean duten eragina aztertzeko.

Horrez gain, helburu berarekin, ekonomia solidarioari eta ehungintzari buruzko prestakuntza saioak egin ziren institutuko ikasleekin; tailer-etzabaida saio bat, erretiratuen elkartearekin, eta kontratazio publiko arduratsuari buruzko solasaldi bat, udal teknikariei zuzendua.



## La Economía Solidaria, protagonista en Berriozar

**E**l Ayuntamiento de Berriozar, en colaboración con REAS Navarra (Red de Economía Alternativa y Solidaria), organizó durante el mes de marzo una programación especial centrada en la Economía Social y Solidaria (ESS). A lo largo de una quincena se desarrollaron diversas actividades dirigidas a la ciudadanía con el objetivo de fomentar principios como la equidad, el trabajo digno, la sostenibilidad ecológica, la

cooperación, el reparto justo de la riqueza y el compromiso con el entorno.

La programación incluyó una exposición itinerante sobre Economía Solidaria en distintos espacios del municipio para dar a conocer los principios y valores de la ESS, así como una presentación pública sobre la realidad de este modelo en Berriozar, acompañada de una mesa redonda con entidades locales. En el marco del

8 de marzo se celebró también una charla sobre Economía Feminista, buscando responder a las necesidades materiales y afectivas de las personas en base a la autogestión y reciprocidad. Por último, tuvo lugar un taller de consumo crítico, donde se analizó el impacto que tienen los hábitos de consumo en el entorno.

Además, con el mismo objetivo, se plantearon sesiones formativas sobre economía solidaria e industria textil con alumnado del instituto, un taller-debate con el Club de Personas Jubiladas y una charla sobre contratación pública responsable dirigida a personal técnico municipal.

**TURBO**  
**AUTOESCUELAS**  
TU AUTOESCUELA EN BERRIOZAR  
Ven a nuestras oficinas e infórmate de nuestros servicios y tarifas  
C/ Iruñalde, 1 • 31013 • Berriozar  
948 948 30 06 20 | 636 585 086  
turboberriozar@turboautoescuelas.com  
[www.turboautoescuelas.com](http://www.turboautoescuelas.com)

**Arantza Gómez** La inmobiliaria de Berriozar  
VÍDEO SOBRE EL DESARROLLO URBANÍSTICO DE BERRIOZAR  
Lee el QR  
exp REALTY  
644 648 738

# Kulturarteko bizikidetza planaren jendaurreko aurkezpena, maiatzean

**B**erriozarko kulturarteko bizikidetza plana azken fasean dago. Lehen fasean diagnostikoa landu eta proposamen kopuru handia bildu zen, bai eta informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa ere. Horrenbestez, prozesua, orain, bigarren eta hirugarren faseetan dago eta ekintzak zehaztuko dira.

Lana partaidetzan oinarriturik gauzatzen ari da, tokiko eragile askok esku hartuz. Horretarako, hiru batzorde osatu dira: Berdintasuna, Eskubideak, Aukerak eta Bazterkeriarik eza;

Kultura, Euskara, Kirola eta parte-hartzea; eta Hezkuntza Formala eta bestelako prestakuntza esparruak. Izaera irekiari esker, beste eragile batzuk ere parte hartzen ari dira; horrez gain, nekez gerta daitezkeen topaketak ahalbidetu dira jatorri, adin, sexu eta/edo prestakuntza ezberdina dituen jendearen artean.

## Funtsezko datak

Prozesuaren ondorioz, helburu orokorrak eta berariazkoak zehaztu dira, bai eta jarduketa

proposamenak ere. Guztiak datorren maiatzaren 7an, ostegunarekin, aurkeztuko dira jendaurrean, 19:00etan, Berriozarko Entzunaretoan.

Lehenago, apirilaren 14an, azken lan batzorde parte-hartzailea eginen da. Irailtik aurrera, berriz, herritarrendako zabalik egonen den beste partaidetza prozesu bat abiaraziko da, aurreikusitako jarduerak zehazteko eta abian jartzeko. Dena den, haietako batzuk dagoeneko garatzen hasi dira.

## Presentación pública en mayo del Plan de Convivencia Intercultural

**E**l Plan de Convivencia Intercultural de Berriozar entra en su fase final. Tras la primera fase de diagnóstico, en la que se recogió un amplio volumen de propuestas e información cuantitativa y cualitativa, el proceso se encuentra ahora en una segunda y tercera fases, centradas en la definición de acciones concretas.

El trabajo se está llevando a cabo mediante un proceso participativo en el que se implicaron diferentes agentes locales. Para ello se han

constituido tres comisiones: Igualdad, Derechos, Oportunidades y No Discriminación; Cultura, Euskera, Deporte y Participación; y Educación Formal y otros ámbitos formativos. Este carácter abierto ha favorecido la incorporación de nuevos agentes y ha propiciado "encuentros improbables" entre personas con origen, edad, sexo y/o formación distinta.

## Fechas clave

Como resultado de este proceso se han definido

objetivos generales y específicos, así como propuestas de actuación que serán presentadas públicamente el próximo jueves 7 de mayo a las 19:00 horas en el Auditorio de Berriozar. Antes, el 14 de abril, se celebrará una última comisión de trabajo participativa; y a partir de septiembre se pondrá en marcha un nuevo proceso participativo abierto a la ciudadanía para concretar y poner en marcha las actividades previstas, algunas de las cuales ya se han comenzado a desarrollar.



## Poz giroa inauteetan, Iruñalde zentroan

● Iruñalde eguneko zentroaren erabiltzaileek otsailaren 13an ospatu zuten inautea, Mendiak ikastetxeko ikasleekin batera. Eguraldi txarra zela eta, segizioa ikastetxeko pilotalekuan egin zen, baina horrek ez zion indarririk kendu ospakizunari. Zentroaren erabiltzaileek Nafarroako herri inauterietako pertsonaia ezagun bat aukeratu zuten mozzorrotuta joateko, eta halaxe agertu ziren, joaldunen jantziak soinean, hau da, ttuntturra buruan, isipua koloretako zintekin egina, eta larruzko gerrikoa, dena inaute aurreko egunetan haiek berek eskuz egina.

## Alegría por carnaval en el Centro Iruñalde

● Las personas usuarias del Centro de Día Iruñalde celebraron el carnaval el 13 de febrero junto al alumnado del Colegio Mendiak. Debido al mal tiempo, el desfile se trasladó al frontón del centro educativo, pero esto no hizo que la celebración fuera menos especial. Las usuarias y usuarios rindieron homenaje al carnaval rural de Navarra vistiéndose de joaldunak, con gorro de cucurucho, hisopo con cintas de colores y faja de borrego, todo ello elaborado a mano por ellas mismas los días anteriores a la celebración.



## Euriak ez zuen Inauterietako ospakizuna galarazi

● Berriozarko inauteriak otsailaren 13an (ostirala) eta 14an (larunbata) ospatu ziren. Bi egunak euritsu ateraz zirenez, jarduerak tokiz aldatu ziren. Horrela, ostiraleko Txolinen konpartsa Artikako pista estalian eta pilotalekuan egin zen. Larunbateko bazkaria, musika ekitaldiak eta gaiteroek girotutako dantzaldiak, berriz, kiroldegiko pilotalekuan. "Baila" haur jarduera, berriz, Gaztegunean.

## La lluvia no impidió la celebración de los Carnavales

● El viernes 13 y el sábado 14 de febrero se celebraron los carnavales en Berriozar, ambos días marcados por la lluvia, circunstancia que obligó a modificar las actividades. El viernes 13 las actividades centradas en la comparsa de Txolín se desarrollaron en la pista cubierta y el frontón de Artika. El sábado la comida, las actividades musicales y el final con los bailables con las y los gaiteros se centralizaron en el frontón del polideportivo, y la actividad infantil "Baila" se realizó en el Gaztegunee.



# INAUTERIAK / CARNAVALES



## Sexu hezkuntzako prestakuntza aurre-begiraleen talderako

**A**urre-begirale gazteen taldeak Eva Rosino Cortésen bi prestakuntza saiotan parte hartuko du. Emailea sexologoa eta gizarte laguntzailea da, genero-ikuspegiari oinarrituta. Saiok apirilaren 13an eta 20an egingen dira Gaztegunean, 17:30etik 19:30era, hezkuntza afektibo-sexualarekin lotutako hainbat gai lantzeko. Lehen saioak menstruazioak izanen ditu ardatz. Bigarrenak, berriz, izaera mistoa izanen du eta sexualitateari lotutako gaiak landuko dira era integratuean eta errespetuz. Hori guztia gazteen autonomia pertsonala indartzeko, ezagutza, onarpena eta errespetuan nahiz berdintasunean oinarritutako harreman osasungarrien garapena sustatuz.

## Formación en educación sexual para el grupo de premonitorado

**E**l grupo de premonitorado juvenil participará en dos sesiones formativas impartidas por Eva Rosino Cortés, sexóloga y trabajadora social con perspectiva de género. Las sesiones, que tendrán lugar los días 13 y 20 de abril en el Gaztegunen en horario de 17:30 a 19:30 horas, abordarán diferentes aspectos relacionados con la educación afectivo-sexual. La primera de ellas se centrará en las menstruaciones, mientras que, en la segunda, de carácter mixto, se trabajarán contenidos vinculados a la sexualidad desde una perspectiva integral y respetuosa. Todo ello con el objetivo de potenciar la autonomía personal de las y los jóvenes, favoreciendo el conocimiento, la aceptación y el desarrollo de relaciones saludables, respetuosas e igualitarias.

## Eskaintza zabala udako kanpalekuetan

● Berriozarko Udaleko Gaztegunek hiri-kanpalekuak antolatu ditu uztailaren 20tik abuztuaren 7ra, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Jarduera guztiak gai berberen inguruan garatuko dira, talde bakoitzaren adin eta beharretara egokituta, hala euskaraz nola gaztelaniaz, ingurune inklusiboa, hurbila, kooperatiboa eta bizia sustatuta.

**Aurreinskripzioa maiatzaren 4tik 8ra egonen da zabalik** 948 012 012 telefonoan edota Udalaren webgunean ([www.berriozar.es](http://www.berriozar.es)). Jarduera, lehenetsunez 2014tik 2022ra bitarte (biak barne) jaiotako haurrentzat da, Berriozarren edo Txulapainen erroldatuta daudenez, zehazki. Udalerriri horietan erroldatuta ez daudenek ere izena ematen ahaliko dute, baina itxaron zerrendan geldituko dira.

### Udalaren dirulaguntza

Udalak dirulaguntza ematen die Berriozartik kanpo egiten diren udalekuetan parte hartzen duten haurren familiei, udalekuaren gastuaren % 40 ordainduz. Eskabideak irailean egin behar dira.

ERA ekimenaren webgunean ([era.eus](http://era.eus)), gainera, Berriozartik kanpo antolatzen diren udaleku guztien eskaintza ageri da.



## Amplia oferta de campamentos de verano

● El Espacio Juvenil del Ayuntamiento de Berriozar ha organizado campamentos urbanos que tendrán lugar entre el 20 de julio y el 7 de agosto, de lunes a viernes de 9:00 a 14:00 horas. Todas las actividades girarán en torno a una temática común y se adaptarán a las edades y necesidades de cada grupo, tanto en euskera como en castellano, promoviendo siempre un ambiente inclusivo, cercano, cooperativo y dinámico.

La **preinscripción estará abierta del 4 al 8 de mayo** a través del teléfono 948 012 012 o de la web del Ayuntamiento ([www.berriozar.es](http://www.berriozar.es)). De manera prioritaria, la actividad está dirigida a niñas y niños que hayan nacido entre los años 2014 y 2022 (ambos incluidos), empadronados/as en Berriozar o Juslapeña. Las personas no empadronadas en estos municipios podrán hacer la inscripción, pero quedarán en lista de espera.

### Subvención municipal

El Ayuntamiento concede una subvención a las familias de las y los participantes en los campamentos de verano en euskera que se realizan fuera de Berriozar abonando el 40% del

gasto del campamento. Las solicitudes se deberán realizar en el mes de septiembre.

Además, en la página web de ERA ([era.eus](http://era.eus)) está la oferta de todos los campamentos en euskera que se organizan fuera de Berriozar.

Udalaren informazio aldizkaria  
Boletín de información municipal

# Berriozar

ZURE IRAGARKIA /  
ANÚNCIATE  
948 13 67 66

**BERRIOZARKO POSTONTZI GUZTIETAN /  
BUZONEO EN TODOS LOS DOMICILIOS**

Los sabores de Emilio

Emilio'sen jaki onak

Donamaria 5. Berriozar  
642 08 58 26  
@lossaboresdeemilio

*Encurtidos,  
gildas, aceites,  
bacalao salado,  
especies a granel,  
dulces...*

*Ozpinetakoak,  
gildak, olioak,  
bakailao gazitua,  
espeziak soltean,  
gozokiak...*

# 8-M Jende asko Emakumeen Nazioarteko Egunean Partecipativo Día Internacional de las Mujeres

**E**makumeen Nazioarteko Egunaren karira, kultur ekitaldiak eta jendea sentsibilizatzeko jarduerak egin ziren Berriozarren, martxoaren 8aren inguruan. Izan ere, Euskal Herria plazako ohiko kale bilkuraz gain (argazkian), ekitaldi andana egin zen, hala nola antzerkia, zinema-topaketak, solasaldiak, haurrentako ipuin-kontaketa eta eskulan tailerra.

Hortaz landara, Udalak Nafarroako toki eta lurralde entitateek bultzatutako kanpaina hedatu zuen, aurten "Feminismoari esker... gaur aukera dugu izan, egon, esan eta erabakitze" lelopean. Adierazpen instituzionalean, toki entitateek oroitarazi zuten egungo eskubide eta askatasunak mugimendu feministaren borroka historikoari zor zaizkiola, eta lanean jarraitzearen garrantzia nabarmendu zuten, egiazko berdintasunean eta justizia sozialean aurrera jotzeko. Era berean, udalak bere konpromisoa berretsi zuen genero ikuspegia politika publikoetan txertatzeko, berdintasunezko hezkuntza sustatzeko eta elkartegintzaren eta mugimendu feministaren lana babesteko.

**C**on motivo del Día Internacional de las Mujeres, Berriozar organizó diversas actividades culturales y de sensibilización en torno al 8 de marzo. Además de la habitual concentración en la plaza Euskal Herria (en la foto), hubo teatro, encuentro cinematográfico, charlas, cuenta cuentos infantil y taller de manualidades.

Además, el Ayuntamiento difundió la campaña de las entidades locales y territoriales de Navarra, cuyo lema este año fue "Gracias al feminismo... hoy podemos ser, estar, decir y decidir". En su declaración institucional, las entidades locales recordaron que los derechos y libertades actuales se deben a la lucha histórica del movimiento feminista y subrayaron la importancia de seguir trabajando para avanzar hacia la igualdad real y justicia social. Asimismo, se reafirmó el compromiso municipal de incorporar la perspectiva de género en las políticas públicas, fomentar la educación en igualdad y apoyar la labor del movimiento asociativo y feminista.



## DBHko 1. mailako ikasleek sexu hezkuntza eta aniztasunari buruzko tailerra egin dute

### Alumnado de 1º de la ESO participa en un taller de educación y diversidad sexual

● Itxaso Torregrosak emanik, tailerra martxoan egin da, sei taldetan banaturik, bi euskaraz eta lau gaztelaniaz, bina orduko hiru saioen bidez, talde bakoitzarentzat. Edukia talde bakoitzaren garapen mailara nahiz ezaugarri eta interesetara egokitu da.

Ikasleei sexualitateari buruzko ikuspegi orokor eta baikorra eskaini nahian, sexu osasunerako hezkuntza azaldu da hainbat saiotan, arrisku-portaeren ezagutza eta prebentzioa sustatuz; era berean, norberaren eta gainerako pertsonen sexualitatea onartzeko eta ulertzeko jarrerak landu dira. Horrez gain, garapenaren etapak, norberaren ongizatearen zaintza eta autoestimua nola indartu izan dituzte langai.

● El taller, impartido por Itxaso Torregrosa, se desarrolló el pasado mes de marzo dividido en seis grupos, dos en euskera y cuatro en castellano, mediante tres sesiones de dos horas con cada uno de ellos. El contenido se adaptó a la fase de desarrollo y las características e intereses de cada grupo. Con el objetivo de ofrecer al alumnado una visión global y optimista de la sexualidad, se promovió en varias sesiones la educación para la salud sexual, fomentando el conocimiento y la prevención de conductas de riesgo, así como actitudes de aceptación y comprensión hacia la propia sexualidad y la de las demás personas. Además, se trabajaron las distintas etapas del desarrollo, el cuidado del bienestar personal y corporal y el refuerzo de la autoestima.

## Zoru pelbikoari buruzko tailerra, berriz ere arrakastatsu

**U**rriko saioen arrakasta ikusirik, Berdintasun Zerbitzuak tailerraren bigarren edizioa antolatu du martxoan, Iruñalde eguneko zentroan. Horrela, Lidón Soriano Segarra izan da tailer-emailea, hau da, Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zientzietako doktore eta fisioterapeuta espezialista, eta emakumeek autoezagutzan sakondu, gorputzaren gaineko kontzientzia hartu, eta oinarritzko ariketak ikasi eta egin dituzte zoru pelbikoaren osasuna eta barne giharrak hobetzeko.

## El taller de suelo pélvico vuelve con una gran acogida

**T**ras el éxito de las sesiones de octubre, el Servicio de Igualdad organizó una segunda edición del taller en marzo en el Centro de Día Iruñalde. De la mano de Lidón Soriano Segarra, doctora en Ciencias de la Actividad Física y Deporte y fisioterapeuta especialista, las participantes pudieron profundizar en el autoconocimiento, tomar conciencia corporal y aprender y practicar ejercicios básicos para mejorar la salud del suelo pélvico y la musculatura interna.

## Nerabeak hausnarrean, pornografiaren kontsumoaz eta sexu indarkeriaz

● Aurreko ikasturteetan bezala, DBHko 4. mailako ikasleek Binomio izeneko programan parte hartuko dute apirilaren 15etik 17ra, sexu indarkeriaren prebentzioa ardatz harturik eta, era berean, pornografiaren kontsumoak harreman afektibo-sexualetan duen eragina aztertzeko.

Kontua da gaztetxoak eta gazteak gero eta lehenago hasten direla eduki pornografikoak ikusten eta, hori kontuan harturik, beharrezkoa dela gazteriarri tresna egokiak ematea, errespetuan, berdintasunean eta tratuan oinarritutako harremanak eraikitzeko eta sexu indarkeria mota guztiak identifikatzeko.

## Adolescentes reflexionan sobre el consumo de pornografía y la violencia sexual

● Como en cursos anteriores, el alumnado de 4º de la ESO participará los días 15, 16 y 17 de abril en el programa Binomio, centrado en la prevención de las violencias sexuales y en el análisis de la influencia del consumo de pornografía en las relaciones afectivo-sexuales.

La iniciativa, con Adriana Salvo e Iñigo Aranbarri al frente, surge ante el aumento del acceso a contenidos pornográficos desde edades cada vez más tempranas y la necesidad de dotar a la juventud de herramientas para construir relaciones basadas en el respeto, la igualdad y el buen trato e identificar las diferentes formas de violencia sexual.



## Komunikazio inklusiboari buruzko gida bat argitaratu da

● Berdintasun Zerbitzuak komunikazio inklusiboari buruzko gida bat plazaratu du herritar guztien artean berdintasunezko hizkera sustatzeko.

Kontsultatu tresna berri hau, funtsezkoa baita berdintasuna sustatzeko, bazterkeriei aurrea hartzeko eta ingurune bidezkoagoak eta berdinzaleagoak sortzeko.



## Publicada una guía de comunicación inclusiva

● El Servicio de Igualdad ha publicado una guía de comunicación inclusiva para promover un lenguaje igualitario en toda la ciudadanía.

Consulta esta nueva herramienta clave para favorecer la igualdad, prevenir discriminaciones y generar entornos más justos e igualitarios.



## Berriozarrek LGTBI+ jarduerak eskaintzen ditu urte osoko programazioan

Udalak LGTBI+ arloaren urteko programazioa aurkeztu du, sentsibilizazioa, herritarren parte-hartzea, kultura eta LGTBIfobiaren prebentzioa uztartuta. 'Berriozar Anitza – Berriozar Diversa' izenburupean, ekimenaren xedea da bizikidetzeta eta benetako berdintasuna sustatzea, eta herritar guztiendako topaketa eta gogoeta guneak eskaintzea.

Programazioan badira jendea sentsibilizatzeko eta LGTBI+ errealitatea gizartean ikustarazteko ekintzak, egun seinatuei lotutakoak, hau da, LGTBIfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna (maiatzak 17) eta LGTBI+ Harrotasun Eguna (ekainak 28). Era berean, prestakuntza eta laguntza teknikoak eskaintzen zaie udal langileei, bai eta hezkuntza, gizarte eta kultur eragileei ere.

Kultur arloan, Berriozar Zinegoak Hedapena ekimenari atxiki zaio (argazkian), hau da, Bilboko LGTBIQ+ Zinema eta Arte Eszenikoen Nazioarteko Jaialdiari. Horren baitan, film laburrak eta luzeak emateaz gain, zineforumak eginen dira, bai eta solaserako guneak eskaini ere, sexu aniztasunean eta genero berdintasunean sakontzeko.

Programazioaren bidez, Udalak berretsi nahi du aurrerantzean ere politika publiko inklusiboak sustatu, sare lana egin eta jende guztiarendako ingurune seguruak sortuko dituela, Berriozar are udalerrri aktiboagoa izan dadin LGTBI+ eskubideen alde egiteko orduan.

## Berriozar oferta una programación anual de actividades LGTBI+

El Ayuntamiento ha presentado la programación anual del Área LGTBI+, un proyecto integral que combina sensibilización, participación ciudadana, cultura y prevención de la LGTBIfobia. Bajo el nombre 'Berriozar Anitza – Berriozar Diversa', la iniciativa busca promover la convivencia, la igualdad real y ofrecer espacios de encuentro y reflexión para toda la ciudadanía.

La programación incluye acciones de sensibilización y visibilización social, vinculadas a fechas clave como el Día Internacional contra la LGTBIfobia (17 de mayo) o el Día del Orgullo LGTBI+ (28 de junio), así como formación y acompañamiento técnico dirigido a personal municipal, agentes educativos, sociales y culturales.

En el ámbito cultural, Berriozar se suma a Zinegoak Hedapena (en la foto), la extensión del Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas LGTBIQ+ de Bilbao, con proyecciones de cortometrajes y largometrajes, acompañadas de cineforums y espacios de diálogo que permiten profundizar en la comprensión de la diversidad sexual y la igualdad de género.

Con esta programación, el Ayuntamiento reafirma su compromiso con políticas públicas inclusivas, el trabajo en red y la creación de espacios seguros para todas las personas, consolidando a Berriozar como un municipio activo en la defensa de los derechos LGTBI+.



## Antzerkia Mendialdea I eta II ikastetxean, genero berdintasuna lantzeko

● Mendialdea I eta II ikastetxeko lehen hezkuntzako 5. mailako ikasleek hezkidetzeta eta generoa tailerlean parte hartu zuten, joan den martxoan. Tailerra Iñigo Aranbarrik eman zuen. Aldi berean, antzezpena, rol jokoak eta talde lana erabili ziren sormena, irudimena eta talde lana sustatzeko eta, halaber, gogoeta eragin zen bai genero berdintasunaz, bai gizarte kolektibo batzuen ikusgarritasunaz eta ikusezintasunaz. Saioretan, gainera, hainbat gai landu ziren, hala nola genero rolen analisia, etxeko lanen banaketa erantzunkidea, errespetua, autoestimua, tratua onak, zaintzak, eta hizkera ez sexistaren erabilera.

## El teatro como herramienta para trabajar la igualdad de género en el Colegio Mendialdea I y II

● El alumnado de 5º de Primaria del Colegio Mendialdea I y II participó durante el mes de marzo en el taller de coeducación y género, impartido por el actor Iñigo Aranbarri. El taller utilizó la dramatización, los juegos de rol y el trabajo en equipo como herramientas educativas para fomentar la creatividad, la imaginación y el trabajo en equipo, al tiempo que promovió la reflexión sobre la igualdad de género y la visibilidad o invisibilidad de ciertos colectivos sociales. Durante las sesiones se abordaron cuestiones como el análisis de los roles de género, el reparto corresponsable de las tareas domésticas, el respeto y la autoestima, los buenos tratos, los cuidados y el uso de un lenguaje no sexista.



# Txolin lasterketa

## Euriak ez zuen herri lasterketa eten La lluvia no frenó la carrera popular

**J**oan den otsailaren 14an, Txolin Lasterketa binakako krosaren bigarren edizioa jokatu zen euripean. Hala ere, 27 bikotek parte hartu eta ederki gozatu zuten lasterketa, kirol eta jai giroan. Haur proba kiroldegiko pista estalira eraman zen eta, horri esker, 40 haurrek laster egin zuten, hau da, iaz baino gehiagok.

Mozorro-jantzirik onenarendako saria vespa bitxi eta dibertigarrientzat izan zen, publikoaren begietan ederki nabarmendu baitziren.

Lasterketaren ondotik, haurrei txokolatea eman zitzairen, eta helduei, berriz, txistorra. Une benetan gozoa eta atsegina izan zen hitz egiteko, harremanak egiteko eta bizikidetzarako. Horrenbestez, lasterketa berriz ere ekitaldi egokia izan da kirola eta herrigintza bultzatzeko.

Otsailaren 19a, LGBTIfobiaren kontrako Nazioarteko Eguna da kirolean. Hori dela eta, aldarrikapenak bere tokia izan zuen Txolin Lasterketa herri krosaren irteeran, parte-hartzaileek argazkia egin baitzuten, LGBTI+ bandera bat agerian eta kirol arloko aniztasunaren aldeko slogan bat erakutsiz.

**E**l pasado 14 de febrero se celebró la segunda edición del Cross por Parejas Txolin Lasterketa en una jornada marcada por la lluvia, que no impidió que 27 parejas tomaran la salida y disfrutaran de la prueba en un ambiente deportivo y festivo. La prueba de txikis se trasladó a la pista cubierta del polideportivo, lo que permitió que 40 niñas y niños disfrutaran de la carrera, superando la participación de la edición anterior.

El premio al mejor disfraz fue para unas originales y divertidas vespas, que no pasaron desapercibidas entre el público.

Tras las pruebas, las y los txikis disfrutaron de una chocolatada y las personas adultas compartieron una txistorrada, generando un espacio de encuentro y convivencia que volvió a convertir la cita en una fiesta del deporte y la comunidad.

El 19 de febrero se conmemora el Día Internacional contra la LGBTIfobia en el deporte. Por ello, la reivindicación estuvo presente este año en la salida del cross popular Txolin Lasterketa, con las y los participantes en la carrera posando con una bandera LGBTI+ y un eslogan a favor de la diversidad en el deporte.



## 300etik gora parte-hartzaile Eolos Race lasterketan Más de 300 participantes en la carrera Eolos Race

**E**olos Race, dagoeneko, oztopo-lasterketa aipagarria da zinez Iruñerrian. Horrela, otsaileko lehen asteburuan (hilaren 7an, larunbata, eta 8an, igandea), lehiaketaren bigarren edizioa jokatu zen Berriozarren. Guztira, 327 lagunek eman zuten izena; 196 gizonek (% 59,9) eta 131 emakumek (% 40,1), hain zuzen ere. Beraz, iaz bezala, aurten ere, nesken parte-hartzea arras nabarmena izan da kirol ekitaldi honetan. Egunez eguneko banaketari dagokionez, larunbatean 196 lasterkerik parte hartu zuten 5 kilometroko eta 20 oztopoz osaturiko modalitatean; igandean, berriz, 131k, esperientzia handiagoko atletendako lasterketetan; horri esker, antolamendua arina izan zen asteburu osoan, eta garapena orekatua benetan.



**E**olos Race se consolida como una carrera de obstáculos de referencia en la Comarca de Pamplona. Durante el primer fin de semana de febrero, sábado 7 y domingo 8, Berriozar acogió la segunda edición de esta competición. La prueba se cerró con un total de 327 personas inscritas, de las cuales 196 fueron hombres (59,9 %) y 131 mujeres (40,1 %), manteniendo una participación femenina muy destacable dentro del conjunto del evento.

En cuanto a la distribución por jornadas, 196 corredores y corredoras participaron el sábado en la modalidad de 5 kilómetros y 20 obstáculos, y 131 lo hicieron el domingo en las carreras para atletas con más experiencia, lo que permitió una organización fluida y un desarrollo equilibrado a lo largo de todo el fin de semana.

## ‘Mendialdia’ mendi zikloa apirilean

● BKE Mendi Eskolak ‘Mendialdia’ zikloaren hirugarren edizioa antolatu du apirilaren 13tik 26ra. Mendi zikloak gero eta mendizale eta eskaladazale gehiago erakartzen ditu, era askotako jarduerak antolatuz jende guztiarentzat. Aurten, “Okm-ko abenturak” izanen dira ardatz, gure mendien garrantzia nabarmentzeko, bai eta haietan egin dezakegun guztia ere. Martxo-apirilko kultur agendan dituzu ikusgai aurten antolatu diren jarduera guztiak.

## Nueva edición del ciclo de montaña ‘Mendialdia’

● Entre el 13 y el 26 de abril, BKE Mendi Eskola ha organizado la tercera edición de ‘Mendialdia’, el ciclo de montaña que se consolida entre las personas aficionadas a la montaña y escalada con actividades diversas para todos los públicos. Este año, la temática gira en torno a las “Aventuras km 0”, poniendo el foco en la importancia de nuestras montañas y lo que se puede crear en ellas. Puedes consultar todas las actividades programadas en la agenda cultural de marzo-abril.



**Den-dena inpresio digitalean**  
**Todo en impresión digital**

- planoak • irudiak eskaneatu • kautxuzko zigituak • kopiaik • koadernaketak • plastifikazioak • fakturak eta albaranak • txartelak • kartelak • paper gauzak
- planos • escaneo de imágenes • sellos de caucho • copias • encuadernaciones • plastificaciones • facturas y albaranes • tarjetas • carteles • papelería

Pza. Donantes de Navarra, 9 (Decathlon ondoan) Berriozar  
Tel. 948 076 495  
a-zero@a-zero.eus

De lunes a jueves, 9:30-13:30 y 16:00-18:00  
Viernes, 9:00 - 17:00  
Astelehenetik ostegunera, 9:30-13:30 eta 16:00-18:00  
Ostiraletan, 9:00-17:00



Iruñalde, 1 bajo-trasera  
(Plaza San Esteban)  
Berriozar

**948 301 151**

Centro de Estética

## Memoria Historikoari buruzko Jardunaldiak, bigarrenez

**B**erriozarko Memoria Historikoari buruzko Jardunaldien bigarren edizioa burutuko da heldu den maiatzean, Udaleko Memoria Historikoko batzordeak antolatutako. Ekitaldien artean, Elizaren immatrikulazioei buruzko erakusketa nabarmendu behar da, Kulturgunean ikusgai jarriko dena, Nafarroan izaniko immatrikulazioen aurkako plataformak apailaturik, bai eta gaiaz aritzeko solasaldi bat ere.

Maiatzaren 14an, "Tropezones. La Memoria a ras de suelo" dokumentala emanen da Kulturgunean, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak (NAFSE) ondua. Jendea fusilatu zuten herrietan jarritako galtzada-harriei buruzko lana da. Maiatzaren 17an, berriz, "Cantando bajo las balas" taularatuko da, Luna Hiena ekoiztetxeak eginda eta Ane Gabarainek antzeztua. Historiako lehen ekitaldi ofizial frankistaren kronika da, umorez eta musikarekin emana, 1936ko urrian Salamancako Unibertsitateko Paraninfoan egindakoa, Legioaren sortzaile José Millañ Astray jeneralaren hilotz menderatu gabeak kontatua. Egun hartan bertan, "Ezkaba-Urepel. La fuga" mendi lasterketa eginen da, aurten lasterketa moldean jokatuko dena, Ezkaba mendiko kaskotik abiatuta.



## Segunda edición de las Jornadas de Memoria Histórica

**L**a segunda edición de las Jornadas de Memoria Histórica de Berriozar, organizadas por la comisión de Memoria Histórica del Ayuntamiento, se celebrarán el próximo mes de mayo. El programa incluye una exposición en el Kulturgune sobre las inmatriculaciones de la Iglesia a cargo de la Plataforma contra las inmatriculaciones en Navarra, acompañada de una charla sobre el tema.

El 14 de mayo tendrá lugar en el Kulturgune la proyección del documental "Tropezones. La Memoria a ras de suelo", de la Asociación de Familiares de Fusilados de Navarra (AFFNA). El trabajo versa sobre los adoquines (tropezones) que se colocaban en las localidades donde hubo personas fusiladas. El 17 de mayo se podrá ver la obra de teatro "Cantando bajo las balas", de la productora Luna Hiena e interpretación a cargo de Ane Gabarain. Es la crónica, en clave cómica y musical, del primer acto oficial franquista de la historia, en octubre de 1936 en el Paraninfo de la Universidad de Salamanca, narrada por el cadáver invicto del general José Millañ Astray, fundador de la Legión. Ese mismo día tendrá lugar la carrera de montaña "Ezkaba-Urepel. La fuga", que este año se celebra en formato de carrera con salida desde la cima del monte Ezkaba.

## 2026ko jaietako kartel lehiaketa

● Aurten ere, Udalak lehiaketa antolatu du 2026ko jaiak iragartzeko kartela aukeratzeko aldera. Lanak udaletxeko Auzo Bulegoan aurkeztu beharko dira, maiatzaren 4tik 29ra, 9:00etatik 13:00etara. Lehiaketan, Berriozarko jaiekin lotutako gaiak landuko dira, eta edonork parte hartzen ahalko du, baina pertsona bakoitzak gehienez hiru lan

aurkeztuta, denak jatorrizkoak. Lehiaketak hiru kategoriatan ditu: haurrak, gazteak eta helduak. Lehen saria (600 euro) eskudirutan emanen da; heldu berriozartarren kategorian (300 euro) eta haur eta gazteen kategorietan, berriz, sariak herriko dendetan trukatzeko txartelak izanen dira.

## Concurso para el cartel de fiestas 2026

● Un año más, Berriozar convoca el concurso para seleccionar el cartel anunciador de las fiestas de 2026. Los carteles deberán entregarse en la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento del 4 al 29 de mayo en horario de 9:00 a 13:00 horas. En el concurso, que se ajustará a temas relacionados con las fiestas de Berriozar, podrá participar cualquier

persona con un máximo de tres obras con la condición de que sean originales. El concurso se divide en tres categorías: infantil, juvenil y mayores. El primer premio (600 euros) se concederá en metálico, y en la categoría de mayores local (300 euros) y la infantil y juvenil (150 euros cada una), el premio es un vale de ese valor a canjear en un comercio de la localidad.

## Berriozarren Eguna, maiatzaren 23an

● 2000tik hona, maiatzeko laugarren larunbatean, Berriozarren Eguna ospatzen dugu herrian. Aurten ere, hamaika ekitaldi eginen dira herriko kultur taldeek antolatutako. Egitaraua bere osoan zabalduko da datozen asteotan, baina dagoeneko esan daiteke, besteak beste, haur eta kirol ekitaldiak izanen direla eta, batez ere, musika eta dantza.

## Berriozar celebrará su día el 23 de mayo

● Desde el año 2000, el cuarto sábado de mayo la localidad celebra el Día de Berriozar. Un año más se llevarán a cabo diferentes actividades organizadas por los grupos culturales del municipio. En la programación completa, que se dará a conocer en las próximas semanas, no faltarán actividades infantiles y deportivas y, sobre todo, música y baile.

## Herri sahararrari elkartasuna agertzeko astea apirilean

**A**urreko urteetan bezala, apirilean herri sahararraren aldeko astea egingen da Berriozarren, herriko elkarteek eta bizilagunek antolatua, 2006az geroztik bi herrien artean diren lankidetzak lokarriak eta harremana mantentzeko. Horren emaitza elkarri ematen dioten laguntza da. Aurten, solasaldi bat antolatu da apirilaren 17an, ostiralarekin, hango egoera zertan den jakiteko eta, elkartasunezko bazkaria, hilaren 18an, igandearekin.



## Semana de solidaridad con el pueblo saharauí en abril

**C**omo en años anteriores, en abril se desarrollará en Berriozar la Semana de apoyo al Pueblo Saharaui, organizada por asociaciones y vecinos y vecinas de la localidad con el propósito de mantener los lazos de cooperación y acercamiento que unen a los dos pueblos desde 2006, materializados en esfuerzos de ayuda mutua. Este año se ha organizado una charla sobre la situación de la zona el viernes 17 de abril y una comida solidaria el domingo 18.

## Udaberriko kontzertu zikloa Musika Eskolan

● Francisco Casanova Musika Eskolak udaberriko kontzertu zikloa egin zuen joan den martxoan herriko ikasleekin. Guztira, hamabi kontzertu eman ziren, martxoaren 16tik 27ra. Bi aste, beraz, musikaz beterik. Martxoaren 25eko kontzertua berezia izan zen, eskolako bandak ere parte hartu zuelako eta, egun hartan bertan, kontzertu didaktikoa eman zen ohikoak ez diren instrumentuekin. Ate zabaleko eguna maiatzaren 20an egingen da; barne matrikulazioak, hilabete berean 18tik 20ra, eta kanpo matrikulazioak, berriz, hilaren 26tik 29ra.



## Ciclo de conciertos de primavera en la Escuela de Música

● La Escuela de Música Francisco Casanova celebró el ciclo de conciertos de primavera el pasado mes de marzo con el alumnado de la localidad. En total se programaron doce conciertos entre el 16 y el 27 de marzo, dos semanas llenas de música. El concierto del 25 de marzo fue especial, porque participó también la banda de la escuela, y ese mismo día se ofreció un concierto didáctico con instrumentos minoritarios. La jornada de puertas abiertas tendrá lugar el 20 de mayo; las matriculaciones internas serán del 18 al 20 del mismo mes y las externas del 26 al 29.



## Apirileko Feria ekitaldiz beterik

● Aurten ere Apirileko Feria ospatuko dugu herrian, jarduera sorta zabala izanen baita Euskal Herria plazan. Egitaraua hilaren 18an, larunbatarekin, hasiko da, "Aires del Sur" taldearen eskutik, dantza emanaldi bat eskaintzeko (11:45ean) eta, ondotik, "Savia Nueva" koro rocieroaren txanda izanen da (12:45). Egun horretan berean, herri bazkaria egingen da. Dagoeneko, txartelak salgai daude Kirol, Herria eta K+Da tabernetan. Arratsaldean, DBureo musika emanaldia izanen dugu (18:15ean) eta jaiari bukaera emateko ekitaldia (21:30ean). Azken ekitaldia biharamunean egingen da (hilaren 26a, igandea), hots, meza rocieroa.

## Amplia programación en la Feria de Abril

● Berriozar celebrará una nueva edición de la Feria de Abril con un extenso programa de actividades en la Plaza Euskal Herria. El sábado 18 arrancará con una actuación de baile a cargo del grupo "Aires del Sur" (11:45 horas) y la actuación del coro rociero "Savia Nueva" (12:45), para dar paso a una comida popular cuyos tickets pueden comprarse en los bares Kirol, Herria y K+Da. Por la tarde será el turno de la actuación musical de DBureo (18:15 horas) y un acto de fin de fiesta (21:30 horas). El programa se cerrará el domingo 26 con una misa rociera a las 12:30 horas.

## Laster, Liburuaren Eguna ospatuko da Liburutegian

**A**pirila hilabete garrantzitsua da Liburutegirako, Liburuaren Eguna ospatzen baitute. Zehazki, bi ipuin-kontaketa saio egingen dira. Lehena, familientzat, apirilaren 21ean, 18:00etan hasita, BKE mendi elkartearen eskutik, "Anayet, la defensora de los glaciares" izenburupean. Bigarrena, helduendako, "Vamos a contar mentiras" izenburupean, Inés Bengoaren eskutik, apirilaren 23an, 19:00etan. Horrez gain, eskualdeko beste liburutegi batzuekin batera, hilabete osoan irakurleei erronka botako diete desafio dibertigarrien bidez irakurgai berriak aurkitzeko. Apiril honetan, halaber, erakusketa bat jarriko da ikusgai Liburutegian hilaren 17ra arte, "Mujeres libres" collage tailerrean egindako lanak erakusteko. Lanak, zehazki, talde adierazpenaren emaitza dira eta, aldi berean, sentsibilizazio bidez.

Joan den martxoan, bestalde, LiterCreate Txiki jarduera egin zen: sormena lantzeko tailerra da, 8 urtetik gorako haurrei zuzendutako ipuin baten narrazioaren bidez.

## Próxima celebración del Día del Libro en la Biblioteca

**A**bril es un mes importante para la Biblioteca, porque celebran el día del libro. Lo harán con dos sesiones de cuentacuentos. La primera, para público familiar, será el 21 de abril a las 18:00 de la mano del club de montaña BKE y con el título "Anayet, la defensora de los glaciares". La segunda, para personas adultas, será "Vamos a contar mentiras" con Inés Bengoa, el 23 de abril a las 19:00. Además, junto con otras bibliotecas de la comarca, durante todo el mes retarán a todos los lectores y lectoras con desafíos divertidos para descubrir nuevas lecturas.

También este mes de abril, la Biblioteca acogerá hasta el día 17 una exposición en la que se muestran los trabajos realizados en el taller de collage "Mujeres libres", como expresión colectiva y medio de sensibilización.

Por otra parte, el pasado mes de marzo se celebró la actividad LiterCreate Txiki: un taller de creación a través de la narración de un cuento dirigido a niños y niñas a partir de 8 años.



## Andaluziako Egunaren arrakasta handia

● Berriozarren Andaluziaren Eguna ospatu zen joan den otsailaren 28an, larunbatarekin, herriko bi talde aritu baitziren Euskal Herria plazako karpan, jende ugariaren aurrean: batetik, "Savia nueva" koro rocieroa eta, bestetik, "Aires del Sur" ballet flamenkoa. Horren osagarri, patata-tortilla dastaketa egin zen. Arratsaldean, berriz, lehen sevillana lehiaketa egin zen Entzunaretoan, adinaren arabera kategorietan banatuta, eta jendea ere erruz bildu zen.

## El Día de Andalucía se celebró con gran éxito

● Berriozar celebró el Día de Andalucía el sábado 28 de febrero con un festival de los grupos locales coro rociero "Savia nueva" y el ballet flamenco de "Aires del Sur" en la carpa de la plaza Euskal Herria que contó con la presencia de un numeroso público. El acto estuvo acompañado de una degustación de tortillas de patata. Por la tarde se realizó en el Auditorio el primer concurso de sevillanas, dividido en diferentes categorías por edades, también con gran presencia de público.

**IZAN NAHI DUZU GURE HERRIKO ARLO  
GUZTIETAKO EKINTZA, DEIALDI ETA  
PROIEKTUEN BERRI?**

**¿QUIERES ESTAR AL DÍA DE LAS  
ACTIVIDADES, CONVOCATORIAS Y  
PROYECTOS DE LAS DIFERENTES ÁREAS  
DE NUESTRA LOCALIDAD?**



**JARRAITU BERRIOZARKO UDALAREN SARE SOZIALAK  
SIGUE LAS REDES SOCIALES DEL AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR**



**EGIN BAT UDALAREN WHATSAPP KANALAREKIN  
SÚMATE AL CANAL DE WHATSAPP DEL AYUNTAMIENTO**



**Jakizu zeuk zuzenean!**

**¡Que no te lo cuenten!**